

KANALAK:

Gure enpresan hiru kanal mota bereizten ditugu:

- **Komunikazio-kanalak:** gure produktua bezeroengana iristeko, marketin-eko zenbait estrategia erabiliko ditugu. Hala nola: beste produktuekiko ezberdintasuna nabarmentzea, bakarra eta originala delako; prezioan liderra izatea, familia bakoitzeko diru sarreretara egokitzeko ahalmena duelako eta, gainera, zenbait iragarki argitaratuko ditugu hainbat sare sozialetan, telebistan eta irratan.
- **Salmenta-kanalak:** produktuak aukeratu eta erosi ahal izateko, bi modu eskaintzen ditugu, alde batetik gure denda fisikoan edo *on line* bidezko dendan. Gainera, enpresaren telefonora deituz, erosketa egiteko aukera dago.
- **Banaketa-kanalak:** bezeroek eskatutako ondasunak haiengana helarazteko, hainbat zerbitzu mota eskaintzen ditugu: armairuak bezeroaren etxera kamioiez garraiatzea, bezeroak armairua denda fisikoan jasotzea edo gure biltegira joatea hura bertan hartzeko.

